

1. ATZERRITARRA NAIZ, ETA EZ DAUKAT BIZILEKU-BAIMENIK. Ba al daukat osasun laguntza publikorik jasotzerik?

BAI. Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean erroldatuta bazaude, **OSASUN-TXARTEL INDIBIDUALA** (OTI) eskatu behar duzu, eta, behin txartel hori izanda, gainerako herritarren baldintza berberetan osasun-laguntza jasotzeko eskubidea izango duzu.

EZ bazaude Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean erroldatuta, baina Gobernu Kanpoko Erakunde baten txostena baduzu, **behin-behineko Osasun Txartel Indibiduala** eskatu beharko duzu.

2. ATZERRITARRA NAIZ, ETA ALDI BATERAKO BIZILEKU-BAIMENA DAUKAT (iraungi gabeko bisa daukat edo ez dira igaro 90 egun Espainiako Estatuan sartu nintzenetik). Horrela izanik, ba al daukat osasun-laguntza publikorik jasotzerik?

EZ, salbu eta:

- Oinarrizko gizarte-zerbitzuen aldeko txostena baduzu.
- Haurdun bazaude eta/edo adingabea bazara, eta ez baduzu aseguru mediko pribaturik (bidaiakoa edo beste edozein), ezta publikorik ere (Europako Osasun Txartela, adibidez).

Aurreko bi aukeretako edozein gertatzen bada, osasun-laguntza publikoa jasotzeko eskubidea izango duzu. Baldintza horiek betetzen ez badituzu, osasun-laguntza jaso ahal izango duzu, baina fakturatu egingo zaizu.

3. NAZIOARTEKO BABESAREN ESKATZAILEA NAIZ, BA AL DAUKAT OSASUN-LAGUNTZA PUBLIKORIK JASOTZEA?

BAI, baldin eta:

- Txartel gorria edo txartel berdea baduzu. Lehenak nazioarteko babes eskatu duzula eta hura izapidetzen ari dela egiaztatzen du; bigarrenak, berriz, Espainiako Estatuan aberrigabeen estatutua eskatu duzula erakusten du.
- Nazioarteko babes-eskaera aurkeztu izanaren frogagiria baduzu.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean erroldatuta egon behar al dut?

EZ, nahitaez.

OSASUN-LAGUNTZA PUBLIKOA JASOTZEKO ESKUBIDEA EMATEN DUTEN EGOERETAKO BATEAN BANAGO...

- **Euskadiko osasun-sistemara eta gainerako pertsonen prestazioetara iristeko eskubide berberak al ditut?**
BAI.
- **Non eska dezaket osasun-laguntza publikoa aitortzeko?**
Etxetik hurbilen duzun Osakidetzako osasun-zentroan.
- **Medikua aukeratzeko eskubidea al dut?**
BAI. Osasun-zentroan, medikuen berri emango dizute, aukera dezazun.
- **Seme-alaba adingabeak ditut, nire egoera berean: ba al dute osasun laguntza publikoa jasotzeko eskubiderik?**
BAI. Gainera, haur eta gazteentzako osasun-programa espezifikoak daude: haur osasuntsuen kontrola eta jarraipena, txertaketa-egutegia, aho-hortzetako osasuna...
- **Sendagaiak behar baditut, ordaindu behar al ditut?**
BAI. Prezioaren % 40 ordaindu behar duzu.

GOGORATU:

→ Lasai joan dagokizun osasun-zentrora edo Osakidetzako larrialdi zerbitzura, edozein osasun-laguntza behar izanez gero. **Beti artatuko zaituzte.** Zure kabuz ezin bazara joan, deitu 112 telefonora.

→ Ez baduzu formalizatuta osasun-laguntza publikoa jasotzeko eskubidearen eskabidea, **egin ezazu etxetik hurbilen duzun Osakidetzako osasun zentroan.**

→ **Zure datu pertsonalak eta osasunari buruzkoak isilpekoak dira.** Artatzen zaituzten osasun-langileek baino ez dute haien berri izango.

Argitalpena: 1.a, 2021eko martxoa • Ale-kopurua: 1.220 • © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Osasun Saila • Argitaratzailea: Argitalpen Zerbitzu Nagusia • Diseinua: Paradero • Inprimaketa: GRÁFICAS INGUGOM, S.L. • L.G.: LG 87-2021

Eusko Jaurlaritza
Osasun Saila

Etorkinentzako sarbidea Euskadiko osasun-sisteman.



 Osakidetza

Euskadi, auzolana
 **EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO